



Lehertu da jaia

TOLOSA ▶ Tolosarrek nahiz kanpotarrek erruz bete zituzten atzo Plaza Zaharraren inguruak Inauteriei ongietorria emateko

OTSAILAK 23 ▶ 1981eko estatu kolpe saiakeraren parodia egin eta gero bota zuen suziria Kabi-Alaiko udal korporazioak ▶ 4-5




Jendetza bildu zen Plaza Zaharrera, txilaba eta jantzi koloretsuak soinean, txupinazoa noiz jaurtiko zain. Egun zoroak hasi dira. N. LATABURU

TOLOSALDEA ▶

Eskolak ere mozorrotuta jaiei hasiera emateko

Jaialdiak egin dituzte ikastetxeetan ▶ 3



HITZA

J. RAMON LASARTE ▶ INAUTERIZALEA

«Tolosak duen gauzarik ederrena dira Inauteriak»

Txiki-txikitatik parte hartu du festan ▶ 2

ZABALA

KAFEAK

ONDO PASA
INAUTERIEGAN!



Nafarroa etorbidea, 2
Nagusi enparantza, 2

TOLOSA
ORDIZIA

Tlf.: 943 65 47 95
Tlf.: 943 88 29 88



EGITARUA ▶ GAUR

TOLOSA

OSTIRAL MEHE

12:00. Ozenki Txistulari taldearen kalejira.
16:30. Zezen-plazan xexen-festa, Kabi-Alai txarangak alaituta. Ondoren, kalejira.
19:30. May Gorostiagaren bakarrizketa, txosnagunean. Ondoren, herri afaria.
22:45. Arpegi Taldeak antolatuta, Ostiral Mehe eguneko jaialdia, *Zirkuko mutilak* izenburupean, Beotibar pilotalekuan.
23:00. Kontzertua txosnagunean: Izeba Pilarren ilobak, The Solanos eta Nekin taldeak.

ADUNA

15:00. Elordi plazako lokalean, eskola-umeen antzerki emanaldia, gurasoentzat.
Ondoren. Merienda.

AMEZKETA

15:00. Eskolako haurren Inauterietako kalejira.
Ondoren. Merienda, plazan.

ASTEASU

14:45. Asteasu-Larraulgo eskolakoek kalejira egingo dute pilotalekura; han, antzerki eta dantza saioa eskainiko dute.
Ondoren. Merienda.

BERASTEGI

14:30. Eskolatik aterako dira euskal mitologiako pertsonaiak moztortuta, herrian zehar kalejira eginez.
15:45. Eskolan, merienda.

ZIZURKIL

15:15. Hiru ikastebehen kalejira iturritik aterata.
Ondoren. Joxe Arregi plazan, dantza emanaldia eta merienda.



Zezen-plazan, Lasturgo zezenen aurrean ausart

ATZERA BEGIRA ▶ Urtero-urtero, jendetza erakartzen dute zezen-plazara Inauterietako xexen-festek. Baina ez gaur egun soilik. Antzina ere erruz betetzen zen plaza; orain bezala, lehen ere *toreatzaile* ausarten abileziak aurrez aurre ikusteko irrikitan

egoten baitziren tolosarrak. 1940. eta 1945. urte artean jasotakoa da irudi hau: harmailak jendez gainezka daude, baina ez dira ez gutxi Lasturgo zezenen aurrean korrika egitera ausartzen direnak. 'ARGAZKIAK TOLOSA (1920-45)'. JOSE MARIA TUDURI ESNAL'

JOSE RAMON LASARTE ▶ INAUTERIZALEA

«Tolosak duen gauzarik ederrena dira gure Inauteriak»

Noelia Lataburu. Txiki-txikitatik bizi izan ditu Jose Ramon Lasartek *Txatarrila*-k Inauteriak, «oso era berezian, gainera». Ordutik makina bat moztorro jantzi ditu soinean eta Iurreko txarangaren doinuekin kaleak eta inauterizale guztiak saltoka jarri ditu; berak ere hamaika dantza saio burutu ditu, karrozaren gainean. Ilusio handiz kontatu dio guztia HITZARI.

Inauteriak: zer esan nahi dute jaiak zuzentzat?

Oso jai herrikoiak dira, herrikoienak, hain zuzen ere. Oso bereziki bizitzen ditut; izan ere, txikitatik ezagutu ditut eta barnetik hartzen dut beti parte.

Zergatik dira hain bereziak zuzentzat, bada?

Tolosak duen gauzarik ederrena baitira gure Inauteriak. Alaitasuna, kolorea eta musika nagusitzen dira eta hori ez da gertatzen inon, ezta sanjoanetan ere.

Inauterietan ondo pasatzeko aukera asko daude. Zein nahiago?

Nire bereziki astearteko Pattr Zezena eta dianak gustatzen zaizkit, azken 40 urteetan joan naiz. Ezin ahaztu ere txarangaren zuzendari lanetan aritzen izugarri gustatzen zaidala, bai eta karrozetan aritzea eta txarangaren atzetik saltoka aritzea ere.

Inauterien bultzatzaile sutua zara, orduan.

Bai. Diana desagertzekotan egon zenean ni izan nintzen mantentzeko alde egin zuenatariko bat. Ezin ditugu betiko ohiturak galtzen utzi. Orain berriro berreskuratu dute eta dianara jende asko joaten da.

Nola definituko zenituzke Inauteriak, kanpotik datarren batentzat?

Ondo pasatzeko sei egun. Kanpotarrek ere ederki igarotzen dute, baina argi dago guk bereziki bizitzen ditugula.

Tolosarrak inauterizale behar du izatez?

Nire kasuan behintzat, bai. Txikia nintzenetik hasi nintzen txarangaren doinuak entzuten,



HITZA

TRAGO BATEAN ▶

Egunik onena? Astelehena bertakoentzat, igandea kanpokoentzat.

Mozorro bat? Makina bat jantzi ditut nire bizitzan, ez nuke jakingo aukeratzeko; agian, brasildarrarena edo marinelarena.

Gaua ala eguna? Eguna, gaua gazteentzat uzten dut.
Festa bat. Inauteriak bezelakorik ez dago.

Alde Zaharreen bizi ginen eta. Gauzak asko aldatu dira orduetik, baina funtsa bera da. Tolosar inauterizale gutxi izango dira ziurrenik.

Eta aurtengoak ditugu gainean. Nola igaroko dituzu?

Igandean Iurreko txarangarekin irtengo naiz, elkartekoekin. Astelehenean ere zerbait antolatuko dugu, karrozarekin ateratzeko. Leidorreko abeslariak eta dantzariak izango gara. Aitzakia bikaina izango da egunak pozik igarotzeko.

HERNIALDE
JAIETXEA

helix gairako gertakariak ikurrain

Ondo pasa Inauteriak!

martin jose irraola, 10 • tolosa
tel.: 943 67 56 54



HAUR JAIALDIAK ▶

Ikastetxeak mozorrotuta, jaia non-nahi

Inauterietako oporraldiaren atarian, mozorro-festak egin dituzte den-denek

IMANOL GARCIA - JAIONE ASTIBIA

Kolorea, antzerkia, musika, dantza, mozorroak... Horiexek izan dira nagusi Tolosaldeko ikastetxeetan ere. Gehienetan, gainera, Euskal Inauteria izan dute gai: txantxoak, zakuzarrak, artzain eta iñudeak... Baita euskal mitologiako pertsonaiak ere. Gainerako herensuge, erle, rokeru, txorimalo, kalderero, indio... eta beste hainbestekin batera.

Han eta hemen, lehen hezkuntzako ikastetxeetan, festak

egin zituzten atzo, goizez nahiz arratsaldez: ikasleek euren irakasle eta gurasoekin josita-mozorroak soinean, aurreko asteetan prestatutako dantzak, antzerkiak, kantuak... eskaini zituzten eskoletan ez ezik baita herrietan barrena egindako kalejiretan ere, beti ere euri txinpartek utzi zuten heinean, guraso eta gainerako herritarren alaitasunerako.

Gaur oraindik horretan ibiliko dira beste hainbatetan, eta ondoren oporralditxoa hartuko dute.



Abaltzisketa. Herria indio talde batek hartu zuen beretzat atzo arratsaldean. Gezi eta aizkorak eskuan, luma gorri-urdinak buruan, euriaren dantza eginez ibili ziren herriko ataritan barrena, gero eskola atarian ezarri zituzten tipietan atseden hartuz. JAIONE ASTIBIA



Ibarra. Goiz-goizetik hasi ziren festarekin Uzturpen. Gela bakoitzeko ikasleek eurek prestatutako eskebak antzeztu zituzten —irudian karaokea—, gainerako ikaskideen txaloak eraginez. Ondoren, herrira jaiatsi ziren, hamaiketako egitera. J. ASTIBIA



Ikaztegieta. Ahotik txinpartak bota beharrez eta Txinatik bertatik etorritakoa, herensuge luze-luzea azaldu zen festara; eskolako bikienetatik hasita, kozkorrenek egindako koreografiak osatzen. J. A.



Albizar. Erloju mozorrotuta atera ziren eskolakoak. Kalejira egin zuten ondoko frontoian ikasle eta gurasoek beraiek jotako musikarekin: trikitixa, bonboa, panderoak, makilak... I. GARCIA



Villabona. Euriak jaialdia zapuztuko zuenaren beldur, Olaederra kiroldegian egin zuten Villabonako ikastetxeek jaialdia. Jendez gainezka zeuden harmailak: hainbat eta hainbat guraso bere argazki eta bideo kamerekin. Haurrek, bitartean, irakasleek lagundurik ikuskizun bikaina eskaini zuten kantxan. I. GARCIA



Anoeta-Irura. Ederki gozatu eta nahiko barre egin zuten Anoetako Herri Ikastolako eta Irurako Ikastolako ikasleek Inauteri Jaialdirako prestatutako eskeb barregarriekin. HITZA



TXUPINAZOAZ ▶



Txupinazoa. Kabi-Alai elkarteak udal korporazioa, pregoian. N. LATABORU



Umeak. Dotore. N. URSUA



Dantzariak. Zezen-plazaraino dantzan joan zirenean. N. LATABORU



Jendetza bildu zen Plaza Zaharrera txupinazoiari harrera egiteko; Nafarroako zubian eta Zerkausi inguruan ere jende asko elkartu zen, atzo, festei hasiera emateko. N. LATABORU

Sei eguneko zoramenerari eman dio ongietorria txupinazoak

Jendetza bildu zen Plaza Zaharrera; itxurazko udal korporazioek 1981eko otsailaren 23ko estatu kolpe saiakeraren parodia egin zuten, eta ondo pasatzeko gonbita egin ostean, txupinazoa jaurti zuten

NEREA URBIZU NOELIA LATABORU

Inoiz baino lehenago etorri dira aurten Inauteriak. Euri rik eza izan da hasierako erdiateko gauzarik onenari-koa, izan ere, eguzki izpiren bat ere izan zen, atzo, pregoiaren unean. Plaza Zaharren giro atsegina zegoen: hotzik ez, eta Inauterietarako gogo bizia agerian.

Kabi-Alai udal korporazio-koek pregoian txanga ugari egin zituzten, urtero moduan. Hertan aireportuarekiko asmoak edota Zerkausiaren inguruko proiektua alpatu zituzten, baina beste jendeak gutoria asko egin zuten barre entzundakoen kontura.

Amalieran, suzuria bota aurretik, 1981ko otsailaren 23a gogora ekarri zuten. Tolosa-rrin harriidurarako, udalareko balioan zeudonak makurtu eta aldatuak izan. Irrikortoa jantzia agertu ziren jendaur-reen, egun hartan gertatuta-koaren parodia eginen. Ondoren, jendea makurtzeko eskatu zuten, bestela Inauteriak ez zirela hasiko esanez.

Tolosarrak, festariak gabe gelditu nahi ez, eta zintzo-zin-

Bidegorria eta Zerkausi berria, pregoian

Erredakzioa ▶ Kabi-Alai elkar-tekio itxurazko udal korporazio-koak, 11.45ak aldera, pregoia irakurtzeari ekin zion Lehenik eta behin gaztelanaz eta, ondoren, euskara. Bien bitartean, Plaza Zaharra erruz bete zuten ehunka eta ehunka tolosarrek, hain deno zuten txupinazoren zain. Eta 12.00etan heldu zen festarako astia eta umea. Eguraldiak ere lagundu zuten, nahiz eta ondoren eurriak ere bertan egon nahi izan zuten. Hitz hauek izan ziren, hain zuzen ere: pregoiari ekin erabiltzekoak. Tolosa-ko sei egun zorozi paso emateko.

«Tolosar maiteok, hemen zaudenarek eta falta direnak, aurren berri ere gure promesa aurkeztera etorri gara. Dakizunenez, beti beletzen ditugu promesak. Nahiz eta iluminaturren batek promesa tranpak dirala esan.

Bidegorria: Aste Zaharretako dendarien presio eta eskak-erak dirala eta, alde osoa ltxea, eta bidegorri olimpiako bihurt-zea erabaki dugu. Euren toka-lak, asteburuetan, haurtzain- degi bezala erabiltzeko utzea erabaki dute dendariak.

Zoraboiak, pajarak eta abar izaten dituzten bidegorriale-ek, edar eta ogiltzeko zerbit-utua doan izango dute Aste-asaarra tabernan (ondo en- tzun duzue, bai, doan!). Hala, masai gula bat ere izango da bertan. Eta Berito ahalgundunaren masai goz- ak jaso ahal izango dituzte nahi duinak. Asteburuetan, bide- gorrialeek datorren hilean inagururako den Plaza Berri-ko Kafe Antzokian emango di- ren ikuskizunak doan ikusiko dituzte. Eta jakinarazten dugu bidegorrialeek antindoping kontrol zorrotzak pasatu be- harko dituztela Tolosa Bronte eta Oiarreaga farmazietan. Eta positibo ematen direnak ezin izango du inoiz bidegorria erabili. Gero ez esan ez zeneki- tenki!

Zerkausi berria: Zerkausi bertan behara botako dugu eta 50 solairuko berri bat jar- ritiko dugu mota guzietarako erosotasunez hornituzki: ipu- galduak, eskaliera mekaniko- ak... eta telebilla zerbitzua 24 ordutan, azken solairura ipu ahal izateko.

Euskal Herrian bakar- ra izango da erakitin hau. Ond- orongo instalazio eta zerbit- zuekin hornituko da: fron- toia, bola-tokea, belodromoa, futbol-oihala, sky pistak, ige- riak, dantzalekuak, mult- tizeak, haurtzaindegiak, gure komentariak... eta zoz- bat ere bai (Euskal Herria- n bakarrik diren txoritzarre- kin). Beha solairuan beneta- ko kirol portuek erabaki dugu ondorengo zerbitzuekin: ba- telak, traineruak, kanak, pi- ragaiak, uretako motorrak, bolak, tenisak, jekurrak, ba- leak, trassatlantiko bat. Azken solairuan aireportu bat jar- tzea ere aztertzen ari gara. Parautista treke eta esagun bat izango da hegaldi burua. Bere izena, Mariano. Eta hala buzan eta ez buzan, sar dadi- la kalabazan eta atera dadila Tolosa plaza. Gora Oste- gun Gizen! Gora Inauteriak! Gora Tolosa! Gora Euskal Herria! ◀

CONFINAZOAK - JANIZIAO

IZARBI

TATTOO

IZARBI

ISASTEGI

Abilho-Txiki aztoa, 15 A - 20400 TOLOSA - Tel.: 943 65 29 64
www.isastegiartotegia.com - tolosa@isastegiartotegia.com

GIZARTEA ▶

Egoera larriaren aurrean laguntza deialdia egin dute

Tolosaldea Sahararekin elkarteak eta Tolosako Udalak laguntzak bidali dituzte

I. ASENSIO - I. TERRADILLOS

Aurreko astean Tindouf eskualdeko Saharako iheslarien kanpamenduetan izandako uholdeak sorturiko hondamendiaren ondorioz, Tolosaldea Sahararekin elkarteak eta Tolosako Udalak Tolosaldeko biztanle guztiei dei egin diete diru laguntzak lortzeko. Laguntza hauen bidez, haimak, mantak, sendagaiak eta oinarriko elikagai produktuak lortu nahi dira, eta ahal den azkarren etxerik gabe dauden 12.000 familien beharrei erantzun.

Egoera honetan, Tolosaldea Sahararekin elkarteak 12.000 euroko laguntza bideratu du. Aipatu behar da diru hau Gabonetako elkartasun azokari eta beste hainbat ekarpenei esker bildutakoa dela. Gainera, Tolosako Udalak ere herriko aurrekontuetatik 6.000 euro eman ditu egoera hau bideratzeko. Diru laguntzari egin nahi izanez gero, Ku-



Ion Diaz eta Gregorio Eizagirre gaur abiatuko dira Saharara. I. T.

txan, Euskadiko Kutxan eta La Caixan zabaldu dituzte kontu korronteak.

VI. Maratoia Saharan

Saharako Errepublikaren sorreraren urteurrenean, azken urteetan egin den moduan,

maratoia antolatuko dute saharar errefuxiatu kanpamenduetan. Ion Diaz tolosarrak hartuko du parte bertan. «Saharako egoeraz gehiago jakin nahi nuen, eta maratoni honen berri izan nuenean ez nuen zalantzarik izan. Horrelako ekimenekin elkartasuna ere adierazi nahi

DIRU LAGUNTZAK ▶

Kontu korronte zenbaki hauetan egin ahal izango dira larrialdi egoeran dauden sahararren aldeko diru laguntzak:

Eskadiko Kutxa.
30350012.74.0120086016
(Euskal Autonomi Erkidegorako).

Kutxa.
2101.0067.22.0011180866.

La Caixa.
2100.1758.68.0200077750.

Kutxa.
2101.0067.2000.1018.2384
(Tolosako Udala).

nuen, bertan bildutako dirua sahararrei laguntzeko bideratuko baita». Bidaia, Diaz tolosarrarekin batera, elkarteak Gregorio Eizagirre leaburuarra eta Aitziber Malkorra tolosarra irteeratu dira gaur. Elkartekoek Udalaren eta herritarren laguntza eskertu nahi izan dute.

TOLOSA ▶ ESKIA

Eski irteera antolatu dute Oargi eta Otsabi elkarteek

Martxoaren 3, 4 eta 5erako prestatu dute txangoa

I. ASENSIO

Oargi mendi elkarteak eta Otsabi auzo elkarteak eski irteera antolatu dute Udalaren laguntzarekin. Candanchura (Huescako Pirinioak, Espainia) izango da martxoaren 3, 4 eta 5erako. Sabiñanigoko aterpe batean hartuko dute, eta ostatua, gosaria eta afaria prezioaren barne egongo dira.

Mendiko eta iraupeneko es-

kia egiteko aukera izango da, bi kasuetan autobusa, forfaiata, aseguru eta material alokairua ere barne izango direla. Mendiko eskiaren kasuan prezioa 129,5 eurokoa izango da, eta iraupenezkoarenean 94,5 eurokoa. Ikasleek 10 euroko deskontua izango dute. Informazio gehiago jakiteko edo izena-emateko 630 579 395 telefono zenbakira deitu behar da, 19:00etatik 21:00etara.

TOLOSA ▶ XAKEA

Tolosa-Ibarrak 3-1 irabazi Dio Anaitasuna xake taldeari

I. ASENSIO

Tolosa-Ibarra xake taldeak Gipuzkoako Ligako seigarren txanda jokatu zuen joan den larunbatean, Azkoitiko Anaitasuna-Kakute taldeari 3-1 irabazita. 3. postuan dira, hala, sailkapenean, eta nahikoa dute datorren asteko azken partidari binako berdinketa lortzea igoera faserako sailkatzeko.

Gorengo mailan gauzak



Tolosa-Ibarra xake taldekoak, arriboko irudian. HITZA

okerrago doaz, hirugarrenen galdu baitute jarraian. Beasaingo Alfili taldearekin galdu zuten oraingoan.

iragarki laburrak ▶

SALGAI

Ohea. Estreinatuko gabeko 90 zentimetrotako kabi ohea salgai, kajoiekin. 943 65 45 31 edo 943 65 20 33.
Kotxea. Citroen Berlingo. 2003koa. 30.000 km. Oso egoera onean.

11.000 euro. 635 736 375.

Lokalak. Leiztan, lokalak eta garajeak salgai, eraikuntza berrian. 637 80 60 44.

Kopisteria. Traspasoen edo salgai kopisteria, inprimaketa digitala, prezio onean.

Tolosaldean. 615 73 61 85.

LANA

Tabernaria. Anoetan, neska euskalduna behar da tabernan lau ordu egiteko. Esperientziaduna. 635 745 291.

Irakaslea. Windows XP eta Photoshop eskolak emateko irakasleak behar ditugu.

Ezinbestekoa da autoa izatea eta euskara jakitea. Interesatuak deitu elkarrizketa eskatzeko 943 37 69 79 telefonora.

'EGUNKARIA AUZIA' ▶

«Bidegabekeria zuzentzen hasteko aukera galdu dute»

ERREDAKZIOA

Egunkaria auzian auzipetutako zazpi lagunek jarritako dei helegeitea atzera botatzea eta auzipeekin aurrera egitea erabaki du Espainiako Auzitegi Nazionalak. Horri erantzunez, prentsaurrea eskaini zuten atzo auzipetuek (taratean, Martxelo Otamendi tolosarra).

Haien ustez, *Euskaldunon Egunkaria* itxiz orain hiru urte Espainiako justiziak eginitako «bidegabekeria zuzentzen hasteko aukera paregabea galdu du» erabakiarekin. Gainera, haien ustez Auzitegi Nazionalak muzin egin die Eusko Legebiltzarra, Eusko Jaurlaritzak, Espainiako Kongresuko PP eta PSOE ez beste talde parlamentarioek, Europako Parlamentuko hainbat legebiltzarkidek eta euskal herritarren gehiengoak auzia artxibatze-ko eginitako eskaerei.

TELEFONOAK ▶

Larrialdiak. ((112)) Osasuna.

- ▶ **Alegialdea.** Osasun z.: 653212
- ▶ **Anoeta-Alkiza-Hernialde.** Medikua: 65 23 39
- ▶ **Baliarrain.** Medikua: 889003
- ▶ **Berastegi-Elduain.** Medikua: 683361
- ▶ **Bidegoian.** Medikua: 681134
- ▶ **Ibarraldea.** Osasun etxea: 672411
- ▶ **Ikaztegieta.** Medikua: 653329
- ▶ **Irura.** Osasun zentroa: 690720
- ▶ **Leitza.** Osasun z.: 948 510800
- ▶ **Tolosa.**

- ▶ Anbulatorioa, larriald:461111
- ▶ San Esteban: 006800
- ▶ Gernikako arbola: 006900
- ▶ Amaroako dispen.: 672637
- ▶ Asunzion klinika 675799 - 67 53 90 (larrialdiak)
- ▶ DYA: 672536
- ▶ Gurutze Gorria: 674888
- ▶ Villabona. Anbulat.: 006970
- ▶ Zizurkil. Aiztondo zerb: 693930

Garraioak.

- ▶ Renfe: 902 24 02 02
 - ▶ Donostiako autobusa: 361740
 - ▶ Tolosaldea bus: 650621
 - ▶ Leitzaran autobus.: 948 221015
 - ▶ Taxia: 670420
 - ▶ Taxia (Leitza): 608 873016
- ### Besterik.
- ▶ Ertzaintza: 538820
 - ▶ Tolosa-Udaltzaingoa: 675858
 - ▶ Tolargi: 650016
 - ▶ lurramendi egoitza: 670325
 - ▶ Tolosa gasa: 675320

RAMON OLASAGASTI ▶ KAZETARIA

«Mendizaleen bizitzari buruz hitz egin nahi dut, eta ez heriotzari buruz»

I. Tene Mujika Beka irabazi berri du Berrobiko kazetariak 'Mendiminez' proiektuagatik; mendian hil diren mendizaleen inguruko soslaiak bilduko ditu

IÑIGO TERRADILLOS

Ramon Olasagasti berrobitar kazetariak irabazi berri du I. Tene Mujika Beka bere *Mendiminez* proiektuagatik. Lehenengoz *Euskaldunon Egunkaria*-n, eta *Berria*-n ondoren —TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZAN ere zutabegile izan da— askotariko lanak egin ditu, baina batez ere mendiari buruzko informazioan berezitu da. Ilusio eta ardura handiarekin sentitzen da bere egiteko berriaren aurrean.

Nola jaso duzu saria?

Kirola beti gai txikiago bezala kontsideratzen da, eta horregatik ikerketa edo historiaren arrastoan ibiliko zen lan bati emango ziotela saria uste nuen. Pozik nago, baina bada-ki pisuzko ardura izango dudala orain.

Zertan datza zure proiektua?

Mendian hil diren mendizaleei buruzko biografiak egingo ditut, baina ez biografia hertsiki hertsiki, biografia oso hotza izan baitaiteke: halako egunetan jaio zen, hau eta bestea egin zuen, halako menditara igo zen... Nik haratago joan nahi dut. Soslai eskaini nahi dut, hau da, nor zen, nolakoa zen eta zer egin zuen erakustea.

Omenaldi modukoa izan nahi al du?

Zentzu batean, bai. Egin zutenari eta izan zirenen omenaldi txiki bat. Pertsona hauek egingoagatik, egunkariko orri bat baino gehiago merezi dutela uste dut, euren oroimena bizirik mantentzeko lerro landuago batzuk eskaintzeko asmoa dut, eta badirudi liburu batekin hori lortzen dela. Nire



I. TERRADILLOS

asmoa ez da hildakoei buruz, heriotzari buruz, istripuari buruz hitz egitea, bizitzari buruz hitz egiteko asmoa dut.

Nola hautatu dituzu omen-dukak?

Zaila da hautaketa bat egitea, kirol aldetik egindako ibilbideagatik, aintzindari izateagatik, edo eredugarri izan direlako Felix Iturrategi, Jose Luis Zuloaga Zulu, Manu Badiola, Atxo Apellaniz, Miriam Garcia, Xabier Ormazabal, Antonio Miranda, Mikel Ruiz de Apodaka, Xabier Ansa, Antxon Alonso gogoratu nahi nituzke, besteak beste. Antxon Iturrizarekin ere hitz egin nahi dut, berak oso sakon jorratu baitu mendizale-tasunaren historia.

Hasi al zara lanean?

Bekarena jakin orduko lehen-dabizi mendizaleen lagunekin

eta familiarekin hitz egin dut dudana asmoari buruz. Izan ere, kezka handia nuen, ez baita erraza berriro zoritxarra gogoratzea. Hala ere, esan beharra daukat, abiatu gabeko proiektua dela oraindik. Abiapuntuan nago, eta helmuga oso urrun ikusten dut, eta tartean, lan asko egongo da.

Noiz ikusiko du argia liburuetan?

Urtebeteko epea dut proiektua gauzatzeko. Elkar argitaletxeak hartuko du konpromisoa ondoren, epaimahaia oniritzia ematen badiu, liburua argitaratzeko. Beraz, 2007ko otsailera edo martxorako amaituko beharko dut, urte horretako udaberrian argitaratua egon dadin.

Mendiminez izenburua jarri diozu. Zergatik?

Bitoriano Gandiagaren *Bizitza bera ere irautea besterik ez bada motela da sobra ere poema irakurri nuen, eta hortik sortu zitzaizkidan ideia. Bizitza honetara zertara etorri gara, irautera? Horrek eman zidan pista. Mendizale hauen pasioa mendia zen, mendiminez bizi ziren eta, aldi berean, beste alderdi hori ere bazuen, alegia, mendian bizia galdu eta gero mendia mina ere ekarri zuelako euren familia eta lagunengana. Bi alde horiek lotzeko aukera ematen zidan izenburu horrek.*

Euskal Herrian nabarmena da mendiarekiko dagoen lotura. Gurean, punta-puntako mendizaleak sortu dira, munduko onenariok. Mendian zoritxar bat izatean hunkimen maila handiagoa izatea dakar ho-

OMENALDIA

«Mendizale hauek egin zutenagatik egunkariko orri bat baino, liburu bateko orriak merezi dituztela uste dut»

ARDURA

«Gaiarekin inor ez mintzea da nire kezka nagusia; errespetu jokatu nahi dut gaia delikatua baita»

rrek. Lotura handia du gure gizartean.

Mendizaleek gehiegi arriskatzeko dute?

Bizitza arriskuan jartzen duzun kirol gutxi daude. Esplikatzeko zaila den harremana dago mendia eta mendizalearen artean, eta joko horren osagaietako bat da arriskua. Hori badakite beraiek eta ez dute baztertzen. Sentsazio indartsuak bizitzen dituzte mendi hauek igotzean. Sentsazio horiek probatzen joaten dira mendizaleak. Batzuetan gertatzen da naturaren indarrak medio istripuak izaten direla. Baina uko egin behar al diote mendizaleek zaletasun nagusienari, beren bizitzari, beren pasioari, osagaietako bat arriskua delako? Hegoak ebakiko balizkiote bezala izango zen haien zientzia.

Mendia Euskal Herria bezalako dela diozu.

Askotan kritikatu izan dugu kanpoko komunikabideetan, batez ere, mendia albiste bihurtzen dela istripuak daudenean. Euskal Herria ere badirudi aipagarria dela atentatuak eta konfliktuak bezalako gaiek.

Proiektua hastear duzu. Zerk arduratzen zaitu gehien?

Nire kezka nagusia gaiarekin inor ez mintzea da. Errespetuarekin jokatu nahiko nuke, gaia delikatua baita. Aldi berean, inguruko laguntza jasotzea espero dut lan hau egitekoan.

- ▶ hilberriak
- ▶ urteurrenak
- ▶ eskertzak

Gipuzkoan
50.000
etxetara

ESKELAK
19:00ak arte hartzen dira
Telf.: 943 65 56 95
tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info

HITZA guztietan prezio beragatik

Harpidedunei banatua ▶ 2006ko otsailaren 24a, ostirala ▶ IV. urtea

'HITZA' LAGUNTZEN DUTEN ERAKUNDEAK

udalak: Abaltzola, Adura, Abizur, Aegia, Aizoa, Alzo, Amoreleta, Anoto, Areso, Añabasa, Balaran, Beauriza, Berastegi, Berrobi, Edoan, Hernialde, Ibarra, Itzandegui, Irua, Leaburu, Leiza, Lizartza, Orendain, Oñena, Tolosa, Villabona, Zuzakil

Gipuzkoako Foru Aldundia

Eusko Jaurilaritza, Kultura Saila

HITZA-KO BEZEREN ARRETA ZENBAKIA (zaintzak argitzeko, harpidetuen egiteko...) **943 30 43 46**

GAURKO EGURALDIA



ZIRI-ZIRI ▶
JOXEMI SAIZAR

Komunikazio
inkomunikazio
komunikazio

Komunikatzeko trebezia batzuei areagotu eta beste batzuei moteldu egiten zaie Inauterietan. Ordua eta egoera atmosferikoren arabera. Hona hemen atzo bertan jasotako hiru bi-txi:

1. flasha. Eguerdian, txupinazoan, udaletxeko balkotik trikornio zaparrada erortzen ari dela. «Kaixo aspaldiko! Zenbat denbora ikusi gabe! Zer moduz bizi zara?». Besteak: «Herenegun lanik gabe gelditu nintzen, atzo neska utzi ninduen eta gaur erretzen hasi naiz berriro. Bestela ondo». «Hori dek hori suer-tea! Ez haiz kexatuko! Pozten naiz ikusteaz! Ondo segil!».

2. flasha. Iluntzean barra lepoz beteta duen Orbela tabernan. «Euskrz 2zi ny dt» jartzen duen kamiseta darma. Bere mugikorrean jasotako mezua irakurtzeko nik baino komeria gehiago dituen ondoko neskatilak: «kmnn nao kk iten. 2rra sktu. ez ldein». Inxtantean bidali dio erantzuna: «kkkitz. 5 xl. 4n ktxrroa kusi dt ta hnkn noa. nd loin».

3. flasha. Gaueko ordu txikietan AHTren txosnan. «Epa Joxe! Zemuz? Pagazak trago!» Besteak: «Ez. Ke zu konfundituta. Ni ez Joxe isan». «Etzak adarrik jo, hi Bentatxuko Joxe haiz ta! Ateazak kalimotxoal». «Zu flipatxen. Ni euskaltegiekoekin mintxa praktika egitera, Tolosaren Inauterietaraino». «Joe, Joxe, ze arraro itzeiteken mozkortzeazainen!».

GORA ETA BEHERA ▶



Eskolen ahalegina Inauterietan

Inauterietako prestaketek zenbat denbora eskatzen duten eta buruhauste ematen dituzten edonork azal dezake. Bada, urtero, eskualde guztiko ikastetxeen parte-hartzea izugarria izaten da. Eskolako guztiek hartzen dute parte: irakasleek, ikasleek eta gurasoek. Mozorroek, gainera, ikasgelan gaia jorratzeko aukera ematen dute, eta eskulanak egiteko; eta dantzarekin koordinazioa lantzeko. Esfortzu hori guztia gero herriaren aurrean egiten diren ekitaldi bihurtzen dira, eta ikusleek —gehienbat gurasoek— gustura jasotzen dute emaitza. I. GARCIA

Euskara, bigarren mailakoa?

Tolosako ikurra diren Inauteriak, ohikoa denez, pregoiarekin hasi ziren atzo. Baina erabilitako lehen hizkuntza ez zen euskara izan eta, hori ere, ohikoa izan da orain arte. Euskara gure herriko ama hizkuntza izaki, zergatik pregoian bigarren hizkuntza bezala erabili? Sarritan, umorea tarteko, eta Inauterietan bereziki, erdarara jotzen da. Festa hauetan parte hartzen dugunok hausnarketa egin beharko genuke gure hizkuntzaren erabileraren inguruan. Hasi berri diren Inauteri hauetan ez ahaztu euskara etxean! N. URBIZU

AGURRAK ▶



URTE ASKOAN

Haritz Goenaga Zelaia.

Gaur 4 urte. Zorionak eta muxu bat etxekoan partetik.

HITZA, zorion agurren tartea

Urtebetetzeak, urrezko etzeiak, ezkontzak, jaioberriak... zoriontzeko, etorri:

HITZAren egoitzetara:

Araba etorbidea, 5 behea - TOLOSA • Udaletxeko bulegoa - LEITZA

Mesedez, argazkia bi egun lehenago ekarri. Mila esker!